



SEGURTASUN SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen
SailburuordetzaAraubide Juridikoaren, Zerbitzuen
eta Hauteskunde Prozesuen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Viceconsejería de Administración
y ServiciosDirección de Régimen Jurídico, Servicios
y Procesos Electorales**EBAZPENA, 2022KO ABUZTUAREN 4KOA, ARAUBIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUTESKUNDE PROZESUEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ JENDAURREAN JARTZEN BAITA EUSKADIKO ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA SORTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA.**

Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abuztuaren 4ko Aginduaren bidez, aldez aurreko onarpena eman zitzaion Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko Legearen aurreproiektuari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Azaldutakoagatik, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 11.2.a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzea, hogei egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena. – Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, lege-aurreproiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), Baita euskal araudiaren atarian (Legegunea) ere (<https://www.legegunea.euskadi.eus>) .

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 4a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
GOIATZ AIZPURU LIZARRALDE

